

**Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 2/2021 Instrukzioa, otsailaren 16koa, delitu-zantzuak agertzen direneko espedienteak izapidetzeari buruzkoa.**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 185. artikulua, zerga-zehapenak ez pilatzeko printzipioari buruzkoa, hau xedatzen du:

"1. Zerga Administrazioak uste badu arau-hauste bat Herri Ogasunaren aurkako delitua izan daitekeela, erruduntasun-testigantza bidaliko dio jurisdikzio eskudunari edo espedientea igorriko dio Fiskaltzari, interesduna entzun ondoren. Horrez gainera, bertan behera utziko du administrazio-prozedura, foru arau honetako VI. tituluaren ezarritako jarduketak izan ezik; hain zuzen ere, prozedura hori etenda egongo da agintaritza judizialak epei irmoa edo largespena eman arte, datuak artxibatzeke eskatu arte edo Fiskaltzak espedientea itzuli arte.

Aurreko paragrafoan aipatzen den entzunaldiaren izapidea ez da beharrezkoa izango foru arau honetako 110. artikuluko 3. zenbakian jasotako kasuetan, ez eta Zerga Administrazioaren ikertze-jardueraren eraginkortasuna kaltetu daitekeenean ere. Azken kasu horretan, ordea, txostenean arrazoitu beharko da zergatik ez den egin entzunaldiaren izapide hori.

Deliturik ez dagoela uste badu, Zerga Administrazioak jarduketei ekingo die edo lehen hasitakoekin jarraituko du, auzitegiek frogatutzat eman dituzten egitateekin bat etorritik, eta berriro hasiko dira konputatzen preskripzio-epaia eta zorraren zenbatekoa zehazteko edo dagozkion zehapenak ezartzeko ahalaren iraungipen-epaia.

2. Foru arau honetako VI. tituluaren xedatutakoa aplikatuko du Zerga Administrazioak bai zergak aplikatzeko eta zehazpenak ezartzeko prozeduren tramitazioan bai artikuluko honetako aurreko zenbakian xedatutakoaren aplikazioan".

Bestalde, manu horrek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren VI. titulura bidaltzen du, eta titulu horrek tributua aplikatzeko jarduketak eta prozedurak arautzen ditu ogasun publikoaren aurkako delitua dagoenean.

Hala, haxe aurreikusten du Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 248. artikulua:

"1. Ogasun Publikoaren aurkako delitu baten zantzuak daudenean, prozedura izapidetzen jarraituko da, kasuan-kasuan aplikatu beharreko arau orokorren arabera eta titulu honetan ezarritako arauari jarraituz, nahiz eta foru arau honetako 185. artikuluan ezarritakoarekin bat? erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari pasatu edo espedientea Fiskaltzari bidaltzen zaion.

Honen hurrengo artikuluan adierazitako kasuetan izan ezik, egiaztatu behar diren zerga-betebeharreko elementuen likidazioa eman beharko da; likidazio desberdinetan jasoko dira Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delituari lotutako elementuak eta Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delituari lotuta ez daudenak.

Likidazioak egiteko zenbaki honetan adierazitako eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari egokituko zaio baldin eta Ekonomia itunean ezarritakoaren arabera berari badagokio ikuskapen-eskumena, eta ondorioak sortuko ditu administrazio eskudun guztien aurrean, administrazio horiei aplikatu beharreko tributazio-proporzioa barne; halaber Bizkaiko Foru Aldundiari egokituko zaio likidazio guztien kobrantza egitea, gerora administrazioen artean



konpentsazioak egin badaitezke ere.

2. Titulu honetan ezartzen denera egokituko da Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delituari lotuta dauden zerga-betebeharreko elementuak direla-eta ematen den likidazioa.

Zenbaki honetan adierazitako kasuetan, Zerga Administrazioak ez dio hasiera edo, hala badagokio, jarraipena emango egitate horiei dagokien zehapen-prozedurari. Zehapen-espeditente bat hasi bada eta aurretik amaitu ez bada, prozedura hori amaitutzat joko da, betiere, erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari pasatu edo espeditentea Fiskaltzari bidaltzen zaionean; hala ere, beste zehapen- prozedura bat has liteke zenbaki honetako azken paragrafoan jasotako kasuetan.

Agintaritza judizialaren kondena-epaiak eragotziko du egitate berak direla-eta administrazio-zehapena ezartzea.

Delitua gertatu dela iritzi ezean, Zerga-administrazioak zigor espeditentearekin jarraituko du auzitegiek frogatutzat eman dituzten egitateetan oinarrituz (...)".

Ogasun Publikoaren aurkako delitu baten zantzuak sumatzen diren elementuei dagokien kuotaren zatiari likidazio administratiboa egin behar ez den kasuak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren 249.1 artikuluan daude araututa, eta hauek dira:

- a) Likidazio administratiboa izapidetzeak delituaren preskripzioa ekar badezake Zigor Kodeko 131. artikuluan ezarritako epeen arabera.
- b) Ikerketa edo egiaztapenaren ondorioz, likidazioaren zenbatekoa zehaztu ezin bada edo likidazioa ezin bazaio zergapeko konkretu bati egotzi.
- c) Likidazio administratiboak moduren batean kaltetu badezake iruzurra ikertu edo egiaztatzea.

Halako kasuetan, Zerga Administrazioak aurkeztutako salaketa- edo kereila-idazkiarekin batera, erabaki arrazoitu bat bidaliko da, likidazioa ez emateko erabaki administratiboa hartzeko inguruabarren bat gertatzen dela justifikatzeko.

Kasu horietan, zergapekoari ez zaio aukerarik emango entzunaldirako edo alegazioak egiteko.

Manu hori garatzerakoan, ekainaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuak onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikus-kapenaren Araudiaren 49. bis artikulua hau xedatzen du:

"1. Zergak aplikatzeko edo zehapenak ezartzeko prozedurak izapidetzen dituzten funtzionarioek hautematen badute Herri Ogasunaren aurkako delituen bat egin delako zantzuak daudela, txosten arrazoitu bat emango dute, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauren 185.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko, egiaztatu ondoren zergapekoak ez duela erregularizatu bere tributu-egoera zerga-zorra osorik aitortuz eta ordainduz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauren 250.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauren 249.1 artikuluan jasotako salbuespenak alde batera utzita, txosten horrekin batera, Herri Ogasunaren aurkako ustezko delituarekin lotutako zerga-betebeharreko elementuei dagokien likidazio-proposamena ere aurkeztuko da, dokumentu bereizi batean, non proposamen horren oinarri diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak jasoko diren.



Likidazio-proposamenik egin behar ez bada, berariaz jasoko da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauren 249. artikulua 1. zenbakian ezarritako kasuak gertatu direla.

Betiere, jasota utzi beharko da ez dela guztiz aitortu eta ordaindu delituarekin lotutako zerga-zorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauren 250. artikulua aipatzen duen moduan.

3. Txostena eta, hala denean, aurreko artikuluko 2. zenbakian adierazitako likidazio- proposamenak espedientearen izapideen arduraren funtzionarioaren zuzendariordetzara bidaldiko dira, aurrekari guztiekin batera, hark erabaki dezan Herri Ogasunaren aurkako ustezko delituarekin lotutako prozedura izapidetu behar den. Kasu horretan, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzari zaio espedientearen arduraren funtzionarioaren zuzendariordetzara bidaltzeko. Hark Ogasuneko Zuzendariordetza Nagusiari bidal diezaion.

4. Prozedurarekin jarraitzea egoki irizten bada, emandako txostena eta ?hala denean? likidazio-proposamenak zergapekoari jakinaraziko zaizkie, aurrekariarekin batera, eta hamar eguneko epea emango da zergapekoak alegazioak egiteko eta beren eskubideak defendatzeko egoki deritzeten agiriak aurkezteko.

Jakinarazpen hori zergapekoari egin ahal izango zaio, edo hark delituarekin lotutako likidazio-proposamena ematen den ikuskapen-prozeduran baimendu duen ordezkariari.

5. Alegazioak egon badira, haiek jaso ondoren, espedientearen izapidetzearen arduraren funtzionarioek txostenak emango dituzte, batetik, ebaluatzeko alegazioek zer eragin duten Herri Ogasunaren aurkako delituzantzuari dagozkenez, eta, bestetik, likidazio-proposamenei buruz (halakoak aurkeztu badira).

Prozeduraren ondoriozko administrazio-egintzak emateko eskumena duen organoak uste badu akatsa egin dela egitateak hautematean edo arau juridikoak ez direla ondo aplikatu, orduan, zuzendu egingo du delituarekin lotutako likidazio-proposamena.

Zuzenketa horrek ukitzen baditu zergapekoak alegatu ez dituen zenbait gai, eta, horren ondorioz, zergapeko horren egoera larriagotu bada, zuzenketa-erabakia jakinaraziko zaio, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hamar eguneko epean alegazioak egin ditzan. Epe hori igarota, erabakia emango da, zeina izapide egokiei jarraituz jakinaraziko den.

6. Emandako txostenak espedienteari gehituko zaizkio, ?Ogasun eta Finantza Saileko Lege Aholkularitzako Zerbitzuak txostena eman ondoren?, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari aurkezteko, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzaren bidez.

7. Ogasuneko zuzendari nagusiak, proposamena aztertu ondoren, bi erabaki har ditzake: espedientearen eskumena duen jurisdikzioari bidaltzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauren 185. artikuluan ezartzen diren ondoreekin; edo administrazio-jarduketekin jarraitzea.

Orobat, baimena emango du administrazio-likidazioak egiteko, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 124. artikuluan xedatutakoarekin bat likidazioak egin behar diren kasuetan.

8. Behin Herri Ogasunaren aurkako ustezko delituarekin lotutako zerga-betebeharreko elementuei dagozkien likidazioak eginda, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak zergapekoari jakinaraziko dio ezen espedientearen jurisdikzio eskudunari bidali diola eta, beraz, geldieran utzi direla zerga-administrazioak



dagokion likidazioaren bidez zerga-zorra zehazteko eta ?hala dagokionean? jarri beharreko tributu- zehazpenak ezartzeko ahalak erabiltzeko preskripzio-epea eta iraungitze-epea.

Orobat, zergapekoari Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 251. artikularekin bat egin diren administrazio-likidazioen berri emango zaio, halakorik egin bada, eta ohartaraziko zaio ezen prozeduraren ondoriozko administrazio-egintzak egiteko eskumena duen organoak jakinaraziko diola noiz hasten den likidazioak ordaintzeko borondatezko epea, behin Herri Ogasunaren aurkako delituaren ziozko salaketa edo kereila onartu dela jakinda.

9. Zerga Administrazioak Herri Ogasunaren aurkako delitua egin delako zantzuak ikusten baditu eta delituarekin lotutako likidazioa ez egitea erabakitzen badu ?Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 249.1 artikuluan adierazitako kasuetako bat edo beste lege-xedapen batzuen ondoriozko gainerako salbuespenetako bat izategatik?, orduan, tramitazioan honako hau hartuko da kontuan:

a) Zergapekoari ez zaio aukerarik emango entzunaldirako edo alegazioak egiteko.

b) Salaketa edo kereila aurkezteko eskumena duen organoari bidaliko zaio espedientea, hark jurisdikzio eskudunari edo Fiskaltzari igor diezaion, aholkularitza juridikoko eginkizunak betetzen dituen organoak txostena eman ondoren.

c) Bidalketa horrek berekin ekarriko du ikuskapen-prozedurarako epearen zenbaketa etetea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 146.4 artikuluan ezarritako moduan. Etendura zergapekoari jakinaraziko zaio, informazio-ondorio hutsetarako, non eta komunikazio horren bidez nolabaiteko kaltea ez zaion sortzen iruzurraren ikerketari edo egiaztapenari. Hala bada, inguruabar hori arrazoituta geratu beharko da espedientean".

Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren bigarren xedapenean xedatutakoaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikus-kapenaren Araudiaren 49. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako arauak, behar diren moldaketekin, aplikagarriak dira, halaber, Herri Ogasunaren kontrako delituak egin izanaren zantzuak kudeaketa-prozedura bat egitean agertzen diren kasuetan.

Ondorio horietarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamenduaren 35. artikuluko Bi idatz-zatiko 3. zenbakian adierazitakoaren arabera, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzari dagokio ogasun publikoaren aurkako delituak egin izanaren zantzuak hautemateagatik bideratzen diren espedienteak izapidetzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-ikuskapenaren Araudiaren 49. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoarekin bat.

Orobat, Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamenduaren 35. artikuluko Hiru idatz-zatiko 3. zenbakiak Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzari esleitzen dio, Erakunde Harremanetarako Unitatearen bidez, Fiskaltzarekiko eta Justizia Administrazioko organoekiko harreman ofizialak zentralizatzea, tributu-eragina duen informazioa eman edo jasotzeari edota zergak aplikatzeko prozedurekin zerikusia duten alderdiei dagokienez; salbuespen dira konkurtso- eta premiamendu-prozedurari buruzko alderdiak.



Hasiera batean, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusi honek Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren urtarrilaren 28ko 1/2005 Jarraibidea, Herri Ogasunaren aurka delitua egin delako zantzuren bat antzematen den espedienteen izapidetzari buruzkoa, eman zuen. Haren bidez, zuzendaritza horren menpe dauden organoek espedienteok izapidetzerakoan aintzat hartu beharreko barne arauak ezarri ziren.

Gainera, urtebete geroago Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren urtarrilaren 12ko 1/2006 Jarraibidea, Herri Ogasunaren aurkakoa ez den delitua egin delako zantzuren bat antzematen den espedienteen izapidetzari buruzkoa, eman zuen. Haren bidez, aurreko Jarraibidearekiko prozedura-paralelismo argi bati jarraituz, arloan eskumenak dituzten organoen esku-hartzea antolatzen saiatu zen, Herri Ogasunaren aurkakoak ez diren delituei buruzko zantzuak zeuden beste espediente horietan.

Jarraibide bi horien aplikazioan pilatutako esperientzia, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta hura garatzeko araudietan kontu horiei dagokienez ezarritako araubidearen aldaketa osoa, eta Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetza, urriaren 23ko 178/2007 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko araudia indarrean jartzearen ondorioz, sakonki berrantolatzea direla-eta, gomendagarri gertatu zen jarraibide biak tresna bakar batean eguneratu eta bategitea.

Horretarako, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren apirilaren 15eko 2/2008 Jarraibidea, delitu zantzurik erakusten duten espedienteak izapidetzeari buruzkoa, eman zen. Haren bidez, ordura arte ezarritako prozedura biak bakar batean bategin ziren; izan ere, pilatutako esperientzia eta Sailean gertatutako antolakuntza aldaketak direla-eta, gomendagarria zen kasu horiei guztiei tratamendu bateratua ematea, haien prozedurak lotuta baitaude argi eta garbi.

Jarraibide horren berritasun handietako bat kide anitzeko organo bat ezartzea izan zen. Organo horri agindu zitzaion prozedurak izapidetzeko arduraren duten organoek egindako txostenei hasierako oniritzia ematea, eta bertan arlo honetan eskumenak dituzten organo guztietako arduradunek parte hartzen dute. Horri esker, bakoitzean agertzen diren zantzuak ikuspegi zabal eta aberasgarriago batetik ebalua daitezke.

Azkenik, apirilaren 12ko 2/2017 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren alderdi batzuk aldatzen dituen, 2017ko ekainaren 1ean indarrean sartzean, apirilaren 15eko 2/2008 Jarraibidea, delitu zantzurik erakusten duten espedienteak izapidetzeari buruzkoa, aldatu behar izan zen alderdi batzuetan, batez ere alderdi horiek Herri Ogasunaren aurkako delituak egin izanaren zantzuak hautematen diren elementuei lotutako kopuruen administrazio-likidazioaren erregulazio berrira eta aipatu Foru Arauaren VI. tituluan xedatutako izapideetara egokitzeke.

Erreforma horren helburua Herri Ogasunaren kontrako delitu baten ziozko zigor-prozedura bat egoteak zerga-zorra kobratzeko ekintza geraraztea ekiditea izan zein, halako moldez non, Herri Ogasunaren kontrako delitu bat ustez egin duena, ildo horretatik, administrazioko arau-hauste bat baino egiten ez duena edo, administrazioko arau-hausterik egin gabe ere, zerga-zor bat ordaintzeko eskatzen zaien pertsonak baino egoera hobean geratzen ez den.

Azkenik, 2020ko urtarrilaren 29an, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko araudi berri bat argitaratu zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsia. Haren arabera, hemen hizpide dugunari dagokionez, antolakuntza-aldaketa batzuk sartu ziren Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzan eta Ikuskapen Zuzendariordetzan.



Gainera, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko araudi hori duela gutxi aldatu da Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 130/2020 Foru Dekretuaren bidez. Haren bidez, Aholkularitzako eta Zerga Politikako Zuzendariordetza sortu da, zuzen-zuzenean Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren menpean egongo dena. Besteak beste, zuzendariordetza horri koordinazioa esleitu zaio Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzarekin Herri Ogasunaren kontrako delituei lotutako prozeduretan.

Ogasun eta Finantza Sailean delituak egin izana erakusten duten espedienteen izapidetzan eskumenak dituzten organoen egituran egindako aldaketa horiek direla-eta, gomendagarria da arloari buruzko jarraibide berri bat ematea zeinak, betiere, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren ekainaren 15eko 2/2017 Jarraibidean, delitu zantzurik erakusten duten espedienteak izapidetzeari buruzkoan, ezarritako funtsezko ildoetara eutsiko baitie. Azken jarraibide hori, beraz, indargabetuta geratzen da.

Esandako guztiagatik,

### 1. Delituak egin izanaren zantzuak hautematea.

**Bat.** Zergak aplikatzeko prozedurak izapidetzen dituzten funtzionarioek hautematen badute Herri Ogasunaren aurkako delituen bat egin delako zantzuak daudela, txosten arrazoitu bat emango dute, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 185. artikuluan ezarritakoa betetzeko, egiaztatu ondoren zergapekoak ez duela erregularizatu bere tributuegoera zerga-zorra osorik aitortuz eta ordainduz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 185. artikuluko 1. zenbakian eta ekainaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuak onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikus-kapenaren Araudiaren 49. bis artikuluan xedatutakoarekin bat.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 249. artikuluko 1. zenbakian eta hurrengo paragrafoan aurreikusitako kasuak alde batera utzita, txosten horrekin batera, Herri Ogasunaren aurkako ustezko delituarekin lotutako zerga-betebeharreko elementuei dagokien likidazio-proposamena ere aurkeztuko da, dokumentu bereizi batean, non proposamen horren oinarri diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak jasoko diren.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 249. artikuluko 1. zenbakian berariaz esandakoaz gain, ez da delituari lotutako likidazioa egin beharko administrazioak zerga-zorra dagokion likidazioaren bidez zehazteko ahalmena preskribituta dagoenean.

Likidazio-proposamenik egin behar ez bada, berariaz jasoko da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 249. artikuluko 1. zenbakian edo aurreko paragrafoan ezarritako kasuak gertatu direla.

Betiere, jasota utzi beharko da ez dela guztiz aitortu eta ordaindu delituarekin lotutako zerga-zorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 250. artikulua aipatzen duen moduan.

Herri Ogasunaren kontrako delituen zantzuak hautamaten den guztietan, likidazio-proposamena egin behar bada zein ez, zerga-administrazioak ez du zehapen-prozedurarik hasiko delituak eragindako zerga-betebeharreko



elementuei dagokienez eta, prozedura hori hasi balu, amaitutzat joko da bera erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari bidali edo espediente Fiskaltzari igortzen zaion unean. Hala ere, aukera egongo da zehapen-prozedura berri bat hasteko azkenean delitua hautematen bada, auzitegiek frogatutzat jotzen dituzten egitateen arabera.

**Bi.** Arestiko Bat zenbakiak aipatzen dituen kasuetan, txosten bakarra emango da zergapeko bakoitzeko, eta haren barruan Herri Ogasunaren kontrako delitu bat edo batzuk egin izanaren zantzuak hauteman zaizkion zerga-kontzeptu edo zergaldi edo aitortzeko aldi bakoitza era egokian identifikatu ahalko da

Nolanahi ere, zenbait pertsona fisiko edo juridikoren artean, zergak ordaintzea saihesteko asmoz, unitate ekonomiko bat dagoela uste den kasuetan, guztiei eragiten dien txosten bakar bat emango da.

Betiere, likidazio-proposamen bereizi bana emango da Herri Ogasunaren kontrako delituak egin izanaren zantzuak hautematen zaizkion kontzeptu eta zergaldi bakoitzari dagozkion zerga-betebeharreko elementuei buruz, eta hura oinarritzen den egitateak eta zuzenbideko oinarriak adieraziko dira bertan, proposamena formalizatzeko datara arte zenbatetsitako berandutze-interesak barne.

**Hiru.** Era berean, zergak aplikatzeko prozedurak izapidetzen dituzten funtzionarioek hautematen badute Herri Ogasunaren aurkakoa ez den delituen bat egin izanaren zantzuak daudela, txosten arrazoitu bat emango dute, laidotuak eskatuta bakarrik jazar ezin daitezkeen delituak badira.

Zenbaki honetan aurreikusitako kasuetan, txosten bat egingo da zantzuak hautemandako delitu bakoitzeko, eta formalizatu behar diren txostenak beste prozedura izapidetuko dira.

**Lau.** Arestiko zenbakiak aipatzen dituzten txostenen edukia dagozkien zuzendariordezek edo zerbitzu buruzkek ezarritako eruedetara egokituko dira eta, betiere, aski den izatezko aurrekariaren eta tributuen zen zigorren arloko zuzenbideko oinarri aplikagarrien deskribapen bat jasoko da, baita delituen bidegabe mota eratzen duten elementu guztiak gertatzeari buruzko berariazko iritzia ere.

Dagozkien zuzendariordezek edo zerbitzu buruzkek berariazko eredurik ezartzen ez duten bitartean, Ikuskapen Zuzendariordeztaren prozeduren eskuliburuan jasotako txosten ereduak erabiliko dira guztietan.

**Bost.** Delitu zantzurik hautematen ez den zerga-betebeharreko elementuei dagokienez, zerga-administrazioak zerga-zorra zehazteko eta dagozkion zorrari lotutako zehapenak ezartzeko jarduketari jarraituko die, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren III. eta IV. tituluetan xedatutakoaren arabera, eta likidazio bat formalizatuko du, egiaztatutako elementu guztiak bilduko dituena, delituari lotuta egon zein ez. Likidazio horretatik aurreko Bat zenbakiak aipatzen duen likidazio-proposamenetik ateratzen den kopurua kenduko da. Jarduketak tributuen foru ikuskaritzak egiten baditu, lehenago akta bat formalizatuko da ondorio horietarako.

**Sei.** Tributuek aplikatzeko prozeduretan, Herri Ogasunaren aurkakoak ez diren delituak egin izanaren zantzuak daudela hautemateak ez du ekarriko bidean dauden jarduketak geraraztea. Jarduketa horiek amaitu arte jarraituko dute, eta behin-behineko likidazioa egin ahalko da, egiaztatutako egitateei eragiten dien zigor-prozesuaren emaitza kaltetu gabe, zein ere diren zantzu horiek daudela hautemateko erabili diren egitateei dagokienez jarraitu beharreko prozedura-izapideak.



Kasu horietan, tributuak aplikatzeko eskumena duten organoek ez dute zehapen-prozedura hasiko. Hala ere, aukera egongo da zehapen-prozedura berria hasteko azkenean delitua egon dela hautematen bada, auzitegiek frogatuzat jotzen dituzten egitateen arabera.

## 2. Txostena eta likidazio-proposamenak izapidetzea.

**Bat.** Aurreko 1. zenbakian aipatutako txostena eta, hala badagokio, likidazio-proposamenak, dagozkion aurrekari guztiekin, espedientearen izapidetzaren ardura duen funtzionarioa mendeko den zuzendariordetzari bidaliko zaizkio, kasuan kasu dagozkion atal eta zerbitzu burutzen bitartez, berak balioets dezan agiri horiek euren puntu guztietan ezarritako ereduak egokitzen zaizkien, eta haietan delituak egin izanaren zantzurik dagoen aski ebaluatu ahal izateko eta likidazio-proposamenak oinarritu eta kuantifikatzeko izateko eta zuzenbideko elementu guztiak jasotzen diren.

**Bi.** Dagozkion zuzendariordetzak izapidetzaren ardura duen funtzionarioari espedientea osatzeko, eginbide berriak egiteko edo komenigarritzat jotzen diren alderdiak birformulatzeko eskatu ahalko dio, prozedura izapidetzen jarraitzeko.

Kasu horietan, behar diren jarduketak egindakoan, txostena eta, hala badagokio, likidazio-proposamena, bere aurrekari guztiekin, espedientearen izapidetzaren ardura duen funtzionarioa mendeko den zuzendariordetzari bidaliko zaizkio berriro, arestiko Bat zenbakian azalduetako moduan.

**Hiru.** Eskudun den zuzendariordetzak, arestikoa ikusita, prozedura jarraitzeko proposamen bat egingo du espediente hori izapidetzeko edo, hala badagokio, administrazio-jarduketak jarraitzeko proposamen bat, uste ez badu kasu horretan Herri Ogasunaren kontrako delituen bidegabe mota eratzen duten elementuak betetzen direnik, edo prozedura artxibatzeke proposamen bat uste ez badu kasu horretan Herri Ogasunaren kontrakoak ez diren gainerako delituen bidegabe mota eratzen duten elementuak betetzen direnik.

Eskudun den zuzendariordetzak prozedura jarraitzea proposatzen badu, proposamen hori Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzari. espedientearen dauden aurrekari garrantzitsuekin batera, eta zuzendaritza horrek jarraibide honen hurrengo zenbakiak aipatzen duen bilera deituko du.

## 3. Ebaluazio bilera.

**Bat.** Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak, eskudun den zuzendariordetzak bidalitako espedientea ikusita, haren ebaluazio bilera deituko du, haren presidentzia izango du, eta hauetako arduradunak bertaratuko dira:

- a) Espedientea izapidetzeko ardura duen funtzionarioa mendeko den zuzendariordetza.
- b) Ikuskapen Zuzendariordetza, espedientea izapidetzeko ardura duen funtzionarioa haren mendeko ez den kasuetan, baina prozeduratik ateratako administrazio-egintzak agintzeko organo eskuduna bera bada.
- c) Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetza.





d) Aholkularitzako eta Zerga Politikako Zuzendariordeak.

e) Espedientea izapidetzeko arduradun funtzionarioa mendeko den zerbitzua.

f) Bulego Teknikoko Zerbitzua, Ikuskarpen Zuzendaritzak bidalitako espedienteen kasuetan, eta arestiko b) letrak aipatzen dituenetan.

g) Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua.

Ebaluazio bilera hori aurrez aurre zein bideokonferentzia bidez egin ahalko da.

**Bi.** Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordeak, behar beste denboraz, jarraibide honen 2. zenbakian aurreikusitakoaren arabera bidalitako dokumentazioaren kopia igorriko die bilera horretara doazen pertsonari.

**Hiru.** Bilera horretan espedientean dagoen dokumentazio guztia ebaluatuko da, eta bertan kasu bakoitzeko bidegabe mota eratzten duten elementuak betetzeari dagokionez dauden zantzuak eta frogak aztertuko dira, baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 248. artikuluan xedatutakoaren arabera egindako likidazio-proposamenak ere. Bilera horretan erabaki hauek hartuko dira:

a) Prozedura jarraitzea, hasiera batean delituak egin izanaren zantzuak daudela hauteman delako, bidalitako txostenetik, hala badagokio, hari erantsitako likidazio-proposamenetatik, eta haien euskarri den dokumentaziotik ondorioztatzen denaren arabera.

b) Administrazio-jarduketak jarraitzea, uste ez bada kasu horretan Herri Ogasunaren kontrako delituen bidegabe mota eratzten duten elementuak betetzen direnik.

c) Prozedura artxibatzea, uste ez bada kasu horretan Herri Ogasunaren kontrakoak ez diren gainerako delituen bidegabe mota eratzten duten elementuak betetzen direnik.

**Lau.** Arestiko Hiru zenbakiak aipatzen dituen erabakiak bilerara bertaratutako gehiengoaren bidez hartuko dira. Berdinketari balego, bilerara bertaratutako zuzendariordeen botoen gehiengoaren bidez hartuko da erabakia. Ondorio horietarako, arestiko Bat zenbakiko b) letrak aipatzen dituen kasuetan, Ikuskarpen Zuzendariordeak arduradunaren botoa zenbatuko da, eta ez espedientea izapidetzeko arduradun pertsona mendeko den zuzendariordeak arduradunarena.

**Bost.** Bilera horretan, egokitzat jotzen denean, erabakia hartzea atzeratu eta izapidetzaren arduradun funtzionarioari espedientea osatzeko, eginbide berriak egiteko edo komenigarritzat jotzen diren alderdiak birformulatzeko eskatu ahalko dio, prozedura izapidetzen jarraitzeko eskatu ahalko zaio.

Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordeak erabaki horren berri emango dio eskudun den zuzendariordeari hura gauzatu dadin eta, kasu horietan, dagozkion jarduketak egindakoan, prozedura izapidetzeko arduradun funtzionarioa mendeko den zuzendariordeak txostena bidaliko du berriro eta, hala badagokio, likidazio-proposamenak, haien aurrekari guztiekin Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordeari arestiko 2. zenbakian aurreikusitako moduan, eta beste ebaluazio bilera bat deituko da.



**Sei.** Arestiko Hiru zenbakiko a) letran aurreikusitako erabakia hartzen den kasuetan, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak prozedura izapidetzeko ardura duen funtzionarioa mendeko den zuzendariordetzari jakinaraziko dio, eta emandako txostena, hala badagokio, likidazio proposamenak, dagozkien aurrekariekin batera, eta Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak emandako ebaluazio bileraren erabakiaren ziurtagiria izapidetzeko ardura duen funtzionarioari bidaliko zaizkio berriro, haiek zergapekoei helarazi eta jarraibide honen hurrengo 4. zenbakiak aipatzen duen alegazio-epea eman diezaion.

**Zazpi.** Arestiko Hiru zenbakiko b) eta c) letrak aipatzen dituzten erabakiak hartzen diren kasuetan, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari bidaliko dio ebaluazio bileran erabakitako proposamenaren ziurtagiria administrazio-espedientearekin batera, hala badagokio, hartutako erabakia berrets dezan.

Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren erabakiaren berri emango dio dagozkion zuzendariordetzari dagozkion ondorioetarako.

#### **4. Espedientea agerian jartzea.**

**Bat.** Jarraibide honen arestiko 3 zenbakiko Sei puntuak, eta Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak ebaluazio bileraren erabakia ez berrestea eta prozedura jarraitzea erabakitzen badu zenbaki horretako Sei puntuak aipatzen dituzten kasuetan, espedientea izapidetzeko ardura duen funtzionarioak, zergapekoei behar bezala jakinarazitako komunikazioaren bidez, emandako txostenaren kopia bana bidali edo, dagozkion eginbidean hura jasoz, emango die. Txosten horretan argudiatu beharko da delituak egin izanaren zantzuak hauteman direla, eta hari ebaluazio bileraren erabakiaren edo Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren erabakiaren ziurtagiria erantsiko zaio.

Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren 248. artikuluan xedatutakoa betez egindako likidazio-proposamenak jakinaraziko dizkio zergapekoari.

**Bi.** Orobat, komunikazioa jakinarazi edo eginbidea sinatu eta hurrengo egunetik zenbatuta hamar egun balioduneko epea emango da, zergapekoak egokitzen jotzen dituen alegazio guztiak egin eta bere eskubideari komeni zaion dokumentu oro aurkeztu ahal izateko, haren jokabidean delituak egin izanaren zantzuak hautemateari eta, hala badagokio, egindako likidazio-proposamenei lotuta.

**Hiru.** Jasotako alegazioak prozedura izapidetzeko ardura duen funtzionarioari igorriko zaizkio.

**Lau.** 4. zenbaki honetan aurreikusitako izapidea ez da egingo indarreko araudiak hala xedatzen duenean. Zehazki, ez da aplikagarria izango Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 249. artikulua aipatzen dituen kasuetan.



## 5. Espedientea Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordezari bidaltzea.

**Bat.** Alegazioak jasotakoan edo, kasuan kasu, haiek aurkezteko epea zergapekoek euren eskubidea erabili gabe betetakoan, espedientea izapidetzeko ardura duen funtzionarioak hura bidali izanaren idazkia igorriko dio mendeko den Zerbitzu Burutzari, eta hark Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordezari izapidetuko dio, eskudun den zuzendariordezaren bidez, espedientea Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari bidali eta dagokion ebazpena har dadin.

Idazki horretan zergapekoak egindako alegazioak eta haiek delituak egin izanaren zantzueta duten eragina balioetsiko dira.

Espedienteari, hala badagokio, likidazio-proposamenak erantsi beharko zaizkio, prozedurak eragindako administrazio-egintzak agintzeko ardura duen organoak haiei buruz zergapekoak egindako alegazioen gainean egindako balioespen batekin batera.

**Bi.** Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordezak txostenaren kopia igorriko dio Bizkaiko Foru Ogasuneko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuari, espedientean dauden puntu guztiei buruzko txostena egin dezan.

Prozedura Herri Ogasunen aurkakoak ez diren delituei buruzkoa denean, ez da derrigorrezkoa izango Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuari txostena eskatzea.

**Hiru.** Zergapekoak aurkeztutako alegazioen edo dokumentuen ondorioz, delitu horiei dagozkien bidegabe mota eratzen duten elementuak betetzen ez direla uste ez den kasuetan, espedientea izapidetzeko ardura duen funtzionarioak, mendeko den Zerbitzu Burutzari igortzeko idazkian, proposatuko du, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 249. artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazio-jarduketak jarraitzea erabakitzea edo, bestela, Herri Ogasunaren kontrakoak ez diren delituen ziozko prozedura artxibatzea.

## 6. Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordezari izapidetzea.

**Bat.** Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordezak, prozedura izapidetzeko ardura duen funtzionarioa mendeko den zuzendariordezak emandako proposamena eta Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren txostena, eta espedientean dauden puntu guztiak aztertuta, proposamena igorriko dio Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari erabaki hauetako bat har dezan:

a) Espedientea dagokion jurisdikzioari bidaltzea.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 248. artikulua aipatzen dituen kasuetan, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari administrazio-likidazioak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 251. artikuluko 1. zenbakian aurreikusitakoaren arabera egitea baimen dezala proposatuko zaio.

b) Administrazio-jarduketak jarraitzea, Herri Ogasunaren kontrako delituak egin izanaren zantzuak egon direnik hautematen ez bada.



c) Prozedura artxibatzea, uste ez bada kasu horretan Herri Ogasunaren kontrakoak ez diren gainerako delituen bidegabe mota eratzten duten elementuak betetzen direnik.

**Bi.** Jarraibide honen arestiko 5. zenbakiko Hiru puntuak aipatzen dituen kasuetan, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak 3. puntuak aipatzen duen bilera deituko du, arestiko puntuan adierazitako proposamena egiteko.

**Hiru.** Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak espedientea izapidetzeko ardua duen zuzendariordetzako organoei igorriko die Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak hartutako erabakia, administrazio-jarduketak helarazi edo jarraitzeko, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak Herri Ogasunaren kontrako delituak egin izanaren zantzuak egoteari edo ez egoteari dagokionez hartutako erabakiaren arabera, baita, hala badagokio, Herri Ogasunaren kontrakoak ez diren delituen ziozko prozedura artxibatzeko agindua ere.

Era berean, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak prozeduratik ateratako administrazio-egintzak agintzeko ardua duen organoari helaraziko dio Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren baimena Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 251. artikulua aipatzen dituen likidazioak egin ditzan. Likidazio horietan Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak likidazioak egiteko baimenaren datara arte zenbatetsitako berandutze-interesak sartuko dira, gero Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 255. artikuluan xedatutakoaren arabera prozesu penalak zehaztutakora doitu ahalko bada ere.

**Lau.** Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 251. artikulua aipatzen dituen administrazio-likidazioak egin behar diren kasuetan, prozeduratik ateratako administrazio-egintzak agintzeko ardua duen organoak agindutako likidazioak helaraziko dizkio Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzari, haiek espedientean sartu eta hurrengo puntuek aipatzen dituzten jarduketak egin daitezten.

**Bost.** Orobat, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak Fiskaltzari edo eskudun diren justizia-administrazioko organoei igorriko die jatorrizko administrazio-espedientea, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak erruduntasun-testigantza igarotzea erabaki badu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 185. artikuluko 1. zenbakian eta ekainaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuak onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikus-kapenaren Araudiaren 49. bis artikuluan xedatutakoarekin bat.

Espedienteari Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 251. artikuluan xedatutakoaren babespean egindako administrazio-likidazioen kopia erantsiko zaio edo, hala badagokio, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 249. artikuluan xedatutako kasuak betetzearen justifikazioa.

**Sei.** Era berean, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak administrazio-espedientearen kopia igorriko dio Bizkaiko Foru Ogasuneko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuari, ezagut dezan eta espediente horretatik dagozkion delituen zioz atera litekeen prozeduran pertsonatu dadin.

**Zazpi.** Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak zergapekoari jakinaraziko dio espedientea eskudun den jurisdikziorari bidali zaiola, ondorioz zerga-administrazioak zerga-zorra dagokion likidazioa zehazteko eta ekar litzakeen zerga-zehapenak ezartzeko dituen eskumenak erabiltzeko preskripzio-epea eta iraugitze-epea



eten dela, eta, hala badagokio, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 251. artikuluan xedatutakoaren arabera egindako administrazio-likidazioak.

Komunikazio horretan, zergapekoari jakinaraziko zaio, prozeduratik ateratako administrazio-egintzak agintzeko ardura duen organoak jakinaraziko diola dagozkion likidazioak ordaintzeko borondatezko epearen hasiera Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 253. artikuluan xedatutakoaren arabera, hots, Herri Ogasunaren kontrako delituaren ziozko salaketa edo kereila onartu dela jasota dagoenean.

**Zortzi.** Zergapekoari espedientea agerian jartzeko izapidea egin eta, ondoren, arestiko Bat puntuko c) letrak aipatzen duen erabakia hartu bada, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak prozedura artxibatzeko erabakia hartu dela jakinaraziko dio jarraibide honen 4. zenbakiko Bi puntuak aipatzen duen alegazio-izapidea eman zaion zergapekoari.

#### **7. Likidazioak ordaintzeko borondatezko epearen hasiera jakinaraztea.**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 248. artikulua aipatzen dituen likidazioak agindu badira, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak prozedurak eragindako administrazio-egintzak agintzeko ardura duen organoari eta zergak biltzeko eskumenak dituzten organoei jakinaraziko die Fiskaltzaren ofizioa jaso dela, zeinaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazten baitaia dagozkion instrukzioko epaitegian aurreko eginbideak zabaldu direla.

Prozedurak eragindako administrazio-egintzak agintzeko ardura duen organoak zergapekoari jakinaraziko dio puntu hori, eta, ondorioz, jakinarazitako likidazioak ordaintzeko borondatezko epea hasi dela, dagozkion ordainketa-gutunak erantsiz.

Bestalde, zergak biltzeko eskumenak dituzten organoek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 256. artikuluan xedatutakoa beteko dute. Artikulu hori foru arau horren 248.2 artikuluan kausatzaile direnek edo likidazio hori eragin duten egintzak egiten aktiboki lagundu eta salatutako delituagatik hasitako zigor-prozesuan ikertuta dauden edo prozesu horren ondorioz kondenatuak izan direnek xedatutakoaren arabera likidatutako zorrari dagozkionez duten erantzukizun solidarioari buruzkoa da.

Azken ondorio horietarako, espedientean jada ez dagoen kasuetan, Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak prozeduran pertsonatzearen ondorioz eskuratzen duen aurreko eginbideak zabaltzeko autoaren kopia bat bidaliko dio Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzari.



## **8. Geroko gorabeherak.**

Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuari dagozkion prozedura judizialetan Bizkaiko Foru Ogasunaren prozesuko ordezkari gisa dagozkion eskumenak kaltetu gabe, prozedurari lotutako geroko gorabeherak, Ogasuneko Zuzendaritza Orokorreko organoak Fiskaltzarekin edo justizia-administrazioarekin komunikatzea badakarte, dagozkien zuzendariordetzek bideratuko dituzte, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzako Erakunde Harremanen Unitatearen bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorriz.

## **9. Aldez aurretiko kontsulta.**

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren mendeko zerbitzu burutzek edo zuzendariordetzek Herri Ogasunaren kontrako delituen bidegabe motaren elementuak betetzen diren zalantza egiteko arrazoiak badauzkate, dagozkien administrazio-prozedurak hasi eta jarraibide honen aurreko zenbakietan ezarritako izapideak jarraitu aurretik, txosten arrazoitua igorri ahalko diote Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari, lehenago administrazio-prozedura izapidetzeko erabakia har dadin espediente hori eskudun den jurisdikzioari bidali gabe.

Txosten hori Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzari igorriko dio dagokion zuzendariordetza, eta hark, jarraibide honen 3. zenbakiak aipatzen duen ebaluazio bilera deitu ondoren, eta haren erabakiarekin, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari bidaliko dio dagokion ebazpen-proposamena.

Administrazio-espedientea erruduntasun-testigantza dagokion jurisdikzioari bidali gabe izapidetzeko zenbaki honetan aurreikusitakoaren arabera hartutako erabakiak ez du galaraziko, ondoren, prozedura izapidetzean, Herri Ogasunaren kontrako delituen bidegabe motaren elementuak betetzen direla agertzen duten egitate edo aurrekari berriak hautematen badira, espedientea izapidetzeko ardura duen funtzionarioak jarraibide honen 1.-7. zenbakietan azaldutako prozedura gauzatzea.

## **10. Komunikazioa eta indarrean jartzea.**

Jarraibide hau Ogasun eta Finantza Saileko Zerga Kudeaketako zuzendariordeari, Ikuskapen zuzendariordeari, Zerga-bilketa zuzendariordeari, Informazioaren eta Sistemen zuzendariordeari, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordeari, eta Aholkularitzako eta Zerga Politikako zuzendariordeari komunikatuko zaie, haren edukia pertsona interesdun guztiei helarazteko.

Jarraibide hau 2021eko otsailaren 17an jarriko da indarrean, eta Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren ekainaren 15eko 2/2017 Jarraibidea, delitu zantzurik erakusten duten espedienteak izapidetzeari buruzkoa, indargabetuko du. Orobat, data horretan izapidetzen ari diren prozedura guztiei aplikatuko zaie.

Bilbon, 2021ko otsailaren 24a

OGASUNEKO ZUZENDARI NAGUSIA

Sin.: Iñaki Alonso Arce.